

## AMURRIOKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETARAKO OINARRIAK 2017

1. Lehiaketa honen helbura 2017ko Amurrioko jaietako kartel ofizialaren hautaketa da.
2. Kartelaren luze zabala 70 x 50 zm.takoa izan beharko da euskarri zurrunean. Bertikal tankeran eta behar den bezala bildua.
3. Lanak Amurrioko armarrria eta derrigorrezko testu hau: *“Amurrioko Jaiak 2017. Abuztuaren 12tik 17ra”* ere idatzirik izan beharko du. Aukerako hurrengo testua ere elebidunetan sar daiteke: *“Andra Mari eta Done Errokeren ohorez .En honor de Ntra. Sra. y San Roque”*.
4. 800 euroko sari bakarra dago. Abuztuaren 1eko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartu duen 40/2014 Foru Dekretuak dioenez, sariek dagokien atxikipena daramate, pertsona fisiko batek jasotzen dituen eta 300€ baino gehiagoko errententzio oinarria duten sariek, PFEZaren 19%ko errententzio bat izango dute (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).
5. Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu, originalak eta teknika libre erabiliz. Aurreko lehiaketan aurkeztutako lanek ezin izango dute parte hartu.
6. Lanak aurkezteko epea: 2017ko apirilaren 3etatik 21era bitartean Amurrioko Kultur Etxean, Landako Kalea 8, 01470.
7. Kartelak inolako datu pertsonalik gabe aurkezteko dira, eta kartelaren atzekaldean goiburua baino ez da jarriko. Lanaren goiburu berak azaldu beharko du beste gutun-azal baten kanpoaldean. Bigarren gutun-azal honetan lehiakidearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea sartu beharko dira.
8. Parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du lanek jasan ditzaketen kalteen edo galtzearen ardura, baita lanak bidalpen eta bueltatzearen gastuak.
9. Sarituak izan ez diren lanak jasotzeko hogeitamar egun epea gaindituta, Amurrioko udalaren esku geratuko dira inolako erreklamazio eskubiderik gabe.
10. Kartel saridunaren armarriri Amurrioko Udalak erabaki ditzaten aldaketak egin diezazkioke. Epaimahairen iritziz, kartelaren helburua era egokiagoan lortzeko beharrezkoa bada edozein xehetasun edo kolore aldatzeko behartuta geratuko da kartel irabazlearen egilea, diru gehiago kobratu gabe.
11. Epaimahaia arte eta diseinu munduko hiru pertsona adituk osatuko dute. Erabakia aldaezina izango da.
12. Sari banaketa 2017ko maiatzaren 12an izango da, 20:00etan, “Bañueta” udal kiroldegia atondoan. Egun horretan bertan inauguratuko da ekainaren 2ra arte zabalik izango den erakusketa.

13. Saritutako lana euskarri informatikoan eman beharko zaie antolatzaileei eta Udalaren jabetzapean geratuko da.

Amurrio, 2017ko otsailaren 10ean